



Gazteriaren Foru Erakundea
Instituto Foral de la Juventud


- ▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA
- ▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

GENEROA AISIALDIAN

MONITOREENTZAKO GIDA PRAKTIKOA

Indarkeria sexista prebentzioa
aisialdiko jardueretan

2014ko Iraila



EDUKIA

SARRERA	3
1. ZER DA BATERAKO HEZKUNTZA?	5
2. BATERAKO HEZKUNTZA AISIALDIAN SAR DAITEKE?	7
3. NOLA PLANEATU BATERAKO HEZKUNTZAKO PRAKTIKA BAT AISIALDIAN?	8
3.1. Zer dakar genero ikuspegia txertatzeak?	9
3.2. Jarduera planeatzeko urratsak	11
4. ZER ELEMENTU IZAN BEHAR DIRA KONTUAN AISIALDIKO JARDUERETAN BATERAKO HEZKUNTZAKO PRAKTIKA BAT EGITEKO?	14
4.1. Lengoia	15
4.2. Irudiak.....	16
4.3. Liburuak eta material didaktikoa.....	17
4.4. Ekintzako baliabideak eta espazioak.....	17
4.5. Teknologia berriak	19
4.6. Jolasa	20
4.7. Taldeak	21
4.8. Begiraleak	22
5. INDARKERIA MATXISTAREN PREBENTZIOA POSIBLE AL DA?	23
5.1. Zergatik hitz egiten dugu prebentzioaz?	23
5.2. Nola esku hartu?	24
5.3. Nola prebenitu?.....	26
1. ERANSKINA: Genero ikuspegia duen plangintza egiten ari garen edo ez jakiteko galderak.....	27
2. ERANSKINA: Indarkeriaren kontzeptualizazioa	36
3. ERANSKINA. Indarkeria sexistaren adierazleak eta sinesmen sexistak.....	38
4. ERANSKINA. Baterako hezkuntzarako eta indarkeriaren prebentziorako baliabideak eta materialak	42

SARRERA

“Generoa aisialdian” gidaliburu praktiko bat da, aisialdiko jardueretan baterako hezkuntzako praktika egin nahi duten pertsonentzat sortua: arduradunentzat, koordinatzaileentzat edo begiraleentzat.

Baterako hezkuntzako praktika eta esku hartzea eta indarkeria sexistaren prebentzioa garatzeko, errazteko eta aplikatzeko oinarritzko jarraibide sorta bat ezartzeko helburuz egin da.

Galdera klabeen bitartez eta irudikatze grafikoaren bitartez, baterako hezkuntza aisialdiko jardueretan modu integralean, genero ikuspegitik, txertatzeko egin beharreko urratsak irudikatuko ditugu. Gidaliburu honetan ez duzu aurkituko “ordu betean generoa lantzeko jarduerarik”, baizik eta ikuspegi oso bat. Horrela ulertuko duzu neska-mutilen bizikidetzaren inguruan gertatzen den guztiak generoaren eragina daukala.



Beren artean eta begiraleekin harremanak finkatzen dituzten neska-mutilak dira hauek. Jardueretan eguneko 24 orduetan elkarrekin bizi dira, eta elkarrekin parte hartzen eta jarduten dute. Honelako egoera intentsu batean, rola, jokabide estereotipatuak, zailtasunak eta mutilen eta nesken beharrezko zehatzak beti azaltzen dira, agerian nahiz ezkutuan. Bizikidetzaren aldi honetan sexismoa eta sexu erasoak (edozein mailatakoak direla ere) detektatzeko eta batez ere beraien aurka jarduteko gai izan gaitezela da gidaliburu honen helburu nagusia.

Bestela esateko, orrialde hauetan eskaintzen duguna tresna bat da, aisialdiko jardueraren plangintzan jarrera kritiko bat sustatzea ahalbideratzen diguna eta espazio hauetan ikuspegi berritzaile bat izateko gaitasuna ematen diguna, jarduerak nesken eta mutilen artean berdintasunezko eta indarkeria sexistarik gabeko harremanak sinbolikoki eta errealki eraikitzen laguntzeko aukera baitira guretzat.

1. ZER DA BATERAKO HEZKUNTZA?

Baterako hezkuntza hezkuntzako metodo bat da, sexuen arteko berdintasunetik eta bazterketa ezetik abiatzen dena. Batera hezteko, nesken eta mutilen artean edo emakumeen eta gizonen artean ezin da mendetasun harremanik sortu. Emakumeek historian zehar izan dituzten lorpenak eta egin dituzten ekarpenak hezkuntza formalean eta ez formalean txertatzen dira, zientzia horren ikuspegi androzentrikoak lorpen eta ekarpen horiek ezkutatu baititu. Batera heztea berdintasunean heztea da, ezberdintasunak kontuan izanik.

"Berdintasunak ez du esan nahi berdinak izan behar dugunik, baizik eta ezberdin izateko eskubide bera dugula".

Emakundek honela definitzen du baterako hezkuntza:

"Gaur egungo proposamen pedagogikoa da, teoria feministak egiten duen berdintasun aldarrikapenari erantzuteko. Jakintza eta ideiak transmititzeko eredu birformulatzea dakar, prestakuntzarako eta ikaskuntzarako espazioetan genero ikuspegia sartuz".

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Hezkuntza sisteman hezkidetza eta genero indarkeriaren prebentzioa lantzeko gida plana onartu zuen 2014an. Plan horrek baterako hezkuntza bultzatzen du, uste baita planteamendu horrek genero ezberdintasunak modu mailakatuan desagerrarazteko helburua daukala hezkuntzan, ez bakarrik eskolaren egitura formalean, baizik eta hezkuntzaren ideologian eta jardunean. Kultura maskulinoaren eta femeninoaren alderdi positibo guztiak berreskuratu nahi dira eta jokabiderako erreferente bihurtu, baina genero jakin bati modu hertsian lotu gabe. Horrela, nesken eta mutilen giza garapena bultzatuko da eta nortasun pertsonala duten subjektutzat joko dira, genero estereotipoak baztertuta.


Baterako hezkuntzako proposamen batek rol estereotipatuak hautsi eta gainditu behar ditu eta gizartea ikuspegi kritiko batetik ulertu behar du, jakinik gizarte honetan berdintasunik gabeko egiturak daudela. Horretarako ondokoak izan behar dira kontuan:

Finean, baterako hezkuntza berdintasuna bere praktikan (hezkuntzaren eremu formalean nahiz ez formalean) txertatu nahi duen hezkuntzako pedagogia bat da.

2. BATERAKO HEZKUNTZA AISIALDIAN SAR DAITEKE?

Bai. Baterako hezkuntza ikaskuntza eta prestakuntza tresna izan daiteke aisialdiko jardueretan, helburuak berdintasuna, tolerantzia, errespetua, erantzukizuna, eta berdinen arteko bizikidetzaren mesedetzeren portaeren irakaspenera baitira.


Horrenbestez, helburu horiek guztiak lortzen laguntzen digun tresna da baterako hezkuntza.



3. NOLA PLANEATU BATERAKO HEZKUNTZAKO PRAKTIKA BAT AISIALDIAN?

Baterako hezkuntzako praktika bat egin ahal izateko, kontuan izan behar dira aisialdiko jarduerak bat osatzen duten elementu guztiak eta aisialdiko jardueran egiten diren ekintza guztiak. Hortaz, planeatu behar diren zenbait elementu eta elkarreraginek osatutako ingurunea da jarduera. Horrenbestez, gure jardueretan bizikidetzak integratu ahal izateko, estrategia bikoitza erabil dezakegu. Hau da, batetik **nesken berdintasun baldintzak mesedetzeko ekintza positiboak** egin ditzakegu, eta bestetik, genero ikuspegia zeharkako modu batean sar dezakegu jardueraren garapen osoan.

Hori oso teorikoa da itxuraz, baina uste baino praktikoagoa izan daiteke. Ikus dezagun grafiko hau:



3.1. Zer dakar genero ikuspegia txertatzeak?

Aisialdian, jarduerak, txangoak, baliabideen eta espazioaren banaketa eta abarrekoak planeatzen dira. Hau da, plangintza honela defini dezakegu: "egoera jakin bat eraldatzeko, helburu eta baliabide zehatz batzuk kontuan izanik, egingo diren ekintzak lortzeko egiten den aurreikuspen arrazoitua" (Alesina eta Prato, 2009: 11).

Plangintza landu gabe batean ez da kontuan izaten gizartean generoaren alorrean dagoen berdintasunik gabeko egitura; beraz, ustezko neutraltasun batetik abiatuz, desberdintasunak erreproduzitu baino ez dira egiten. Ustez neutroa den plangintza batek, genero ikuspegiarik gabe, emakumeak ikus ezin bihurtzen eta baztertzen ditu, gizonezkoen parte hartzea sustatuz baina emakumezkoena oztopatuz. Ikus dezagun taula hau:


1. ilustrazioa. Genero ikuspegitik planeatzea edo ez

Zer dakar genero ikuspegia ez txertatzeak?	Zer dakar genero ikuspegia txertatzeak?
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eza erreproduzitzea edota normaltzea.	- Emakumeen eta gizonen arteko arraila murrizteko estrategiak sortzea eta demokrazia zabaltzea.
- Programen eta politiken inpaktua (soziala, kulturala, politikoa, ekonomikoa etab) murriztea.	- Programen eta politiken inpaktua (soziala, kulturala, politikoa, ekonomikoa etab) areagotzea.
- Emakumeak, beraien beharrezan eta interesak baztertzea, gizonekin berdintasunean daudela ziurtzat ematen delako.	- Gizartean emakumeek eta gizonen rol ezberdinak dituztela agerian uztea.
	- Emakumeek eremu guztietan parte hartze handiagoa izateko eta parte hartze horren oztopoak murrizteko edota desagerrarazteko neurriak hartzea.
	- Emakumeak baztertzearen praktikak agerian uztea, desagerrarazteko helburuz.
	- Gizarte errealitatera hobeto hurbiltzea eta, horrenbestez, emaitza hobekiago lortzea.

Iturria: Geuk egina, hemen oinarrituta: Mochales (2009:4), Mujeres fundazioa (2003).

Jarduera berdintasunez egin ahal izateko, fase bakoitzeko ebaluazio bat egin beharko da. Horretarako, oso garrantzitsua da jardueraren arduradunen, begiraleen, eta jarduerak eta laneko plana garatzen dituzten pertsonen koordinazioa eta fase bakoitzaren ebaluazioa, berdintasunezko jarraibideak betez. Genero ikuspegia daukan plangintza on baten faseak hauek dira:

2. ilustrazioa. Edozein ekintza plan egiteko zikloa



Iturria: Hauetan oinarrituta egina: Emakunde (1997); Mochales (2009); Alesina eta Prato (2009).

3.2. Jarduera planeatzeko urratsak

A. Informazio bilketa

Baterako hezkuntzako praktika ezarri nahi den ingurunearen informazioa bildu behar da. Horretarako, jarduera berria hasi baino lehen, aurreko urteetan egindako materialak eta ebaluazioak berrikus litezke, eta datu interesgarri guztiak jasotzen dituen txosten bat egin (zentro mota, zentro kopurua, begirale kopurua, parte hartzaile kopurua, material motak eta abarrekoak jaso). Informazio hori sexuaren arabera banatu behar da beti¹.

Gainera, landuko den inguruneari buruzko informazioa bilatu ahal da, kulturako, gizarteko eta ingurumeneko testuingurua ezagutu, eta erabili ahal diren espazio eta baliabideen berri ikasi. Finean, genero ikuspegitik diagnostiko bat egiteko behar den informazio guztia jasotzeko eskatzen du urrats honek.

Informazio bilketa honetarako informazio kualitatiboa ere jaso daiteke, adibidez, aurreko jardueran egon ziren langileekin eztabaida taldeak eginez edo parte hartu zuten pertsonekin elkarrizketak eginez.

B. Diagnostikoa

Informazioa sexuaren arabera banatuta jaso ondoren, diagnostikoa egin behar dugu, bildutako informazio guztia analizatuz, zalantzatan jarriz eta ebaluatuz. Une horretan detektatu behar ditugu sexistak edo estereotipatuak izan litezkeen materialak, irudiak, ipuinak, jarduerak eta abarrekoak.

Analisi honen emaitzarekin, jarduera egoeraren plano orokor bat finkatuko da, alternatibak planteatu ahal izateko eta erabakiak hartzeko.

1. Datu bilketa kuantitatiboa eta kualitatiboa izan behar da. Horretarako, eginda dauden azterlanak, behatokiak eta estatistikak erabil daitezke, eta elkarrizketak, batzarrak, eztabaida taldeak etab antolatuz.

C. Formulazioa

Fase honetan jardueraren helburuak, baliabideak, jarduerak eta ebaluazioko adierazleak formulatzen dira. Eginkizun honetan genero ikuspegia txertatzeko, sexuen arteko ezberdintasuna adierazi behar da, eta mutilek eta neskek jardueretan parte hartzea nola bultzatuko den azaldu. Gainera, helburu bereziak ezar daitezke, nesken parte hartze handiagoa, batez ere maskulinoztat jo ohi diren jardueretan, eta femeninoztat jo ohi diren jardueretan mutilen parte hartzea sustatzeko ekintza positiboak erakusten dituztenak. Helburu horiek ebaluazioko adierazleak egiten lagunduko dute.

Gainera, teknologia berriak baterako hezkuntzako tresna gisa sartzeari edo ez erabakitzeke unea dugu, eta estereotipoak eta generoko aurreiritziak alde batera utziz lan-kidetzara, integrazioa eta berdintasuna sustatzen dituzten jolasak eta jarduerak asmatu behar ditugu. Hartara, jardueraren baterako hezkuntzako programa egiten duten pertsonen generoko eta berdintasuneko prestakuntza eduki behar dute.

Horrela, jardueran baterako hezkuntzako programa egiten denean, funtsezko zenbait galdera egin beharko dira: Zergatik egin nahi da ekintza jakin bat? Zertarako? Zer? Nola? Non? Noiz? Nola ordainduko dugu? Nortzuek parte hartuko dute? Nork dauka ekintza egiteko erantzukizuna? Nola ebaluatuko da?

Hurrengo atalean baterako hezkuntzako praktika on bat egiteko zortzi elementuak garatuko dira; horiek izango dira formulazio fasearen puntu nagusiak.

D. Gauzatzea eta jarraipena

“Egiaren ordura” iritsi gara, hau da, proiektua abian jartzeko ordura. Fase honetan, begiraleek paper protagonista daukate eta beraien diskurtsoa, jarrerak, sortzen diren gatazkak konpontzen dituzten modua eta plangintzako genero ikuspegia barneratu duten modua funtsezkoak izango dira.

Oso garrantzitsua da planeatutako ekintza guztiei jarraipen etengabea egitea, beraien emaitzak, sortzen dituzten gatazkak, saiaturako konponbideak eta ondorioak, espazioak

banatzeko modua, baliabideak, aurkitutako oztopoak eta bestelakoak baloratu ahal izateko. Ebaluazioa egiterakoan, sexua jaso behar da².

Azaldukoaz gain, begiraleek kontuan izan behar dute lehenengo orduak garrantzitsuak direla berdintasun harremanak finkatzeko. Taldeak sortzeko, arauak finkatzeko eta ekintza aurkezteko uneak dira. Hasiera funtsezko momentua da jardueran etorkizunerako harremanak eraikitzeke.

E. Amaierako ebaluazioa

Azken ebaluazioa begiraleen eginkizuna da. Horregatik, formulazioaren fasean adierazleak sortzea garrantzitsua da. Generoko adierazle horiek prozesua ikuspegi horretatik ebaluatzeke gida izango dira. Azken ebaluazioa, era berean, hurrengo jarduerak planeatzeko zikloa hasteko abiapuntua da.

Azaldu dugunez, genero ikuspegia daukan plangintzan, jarduketako ardatz nagusia desberdintasunak sexuaren arabera identifikatzea da. Jardueren diseinuan eta gauzapean lan egiten duten pertsonen gaitasuna ziurtatzeko, ezinbestekoa da prestakuntza egokia daukatela bermatzea: berdintasuneko prestakuntza integraletik bakarrik aldatuko dira jarrerak eta jokabideak, ez baita nahikoa kontzeptu batzuk jakitea jardueretan berdintasuna bultzatzeko.

Laburbilduz, baterako hezkuntzako praktika bat egiteko, fase bakoitza ebaluatu behar da, ekintzako elementu guztiak kontuan izan behar dira, eta ulertu behar da genero ikuspegia ez dela gauza puntual bat, ezta helburu berezi batzuk integratzea ere, baizik eta ekintzako elementu, helburu, jarduera, jolas eta abarreko guztiak genero ikuspegiarekin eta modu ludikoan integratzea, berdintasuneko eta errespetuzko espazioak sortzen laguntzeko, genero indarkeriatik eta estereotipoetatik urrun.

² Interesgarria da jarraipenean eta ebaluazioan adieraztea nolako harremana daukaten mutilek neskekin eta alderantziz. Gainera, garrantzitsua da batzuen eta besteen portaera jasotzea.

4. ZER ELEMENTU IZAN BEHAR DIRA KONTUAN AISIALDIKO JARDUERETAN BATERAKO HEZKUNTZAKO PRAKTIKA BAT EGITEKO?

Baterako hezkuntzako praktika bat egin ahal izateko, kontuan izan eta aztertu behar diren elementu nagusiak hauek dira:

4.1. Lengoaia

Hain garrantzitsua al da komunikazioan erabiltzen dugun lengoaia aintzat hartzea? Bai. Izan ezazu kontuan lengoaia gure pentsamenduaren atal bat dela. Beraz, neskak baztertzen ditugunean (adibidez, "aurrera mutilak!" bezalako esaldietan, mutilez eta neskez ari garenean), nesken presentziari ez ikusia egiten diogu, garrantzitsua ez bailitzan, eta beraiekin erlazionatzeko modu arrunta hori izatera ohitzen ari gara. Eta beste alde batetik, mutilei mezu bat bidaltzen diegu: beraiek dira taldearen parametroa eta neskak oharkabean igaro daitezke, nahiz eta leku berean egon.

Neskek txikitatik ikasten dute batzuetan hitz batzuk beraiei buruzkoak ere direla baina beste batzuetan hitz bera mutilentzat bakarrik dela. Baina batez ere, ikaskuntza horren barruan, izendatuak ez izaten ikasten dute, erreferentziatuak ez izaten. Beraien presentziak identifikaziorik merezi ez izatera ohitzen dira.

Zergatik ez gara saiatzen lengoaia inklusiboko formulak erabiltzen, inor baztertu gabe? Adibidez, batzuetan "neskak eta mutilak" esan dezakezu, baina ez duzu zertan hitz guztiak bikoiztu behar elkarrizketan neskak sartzeko. Saiatu formula benetan orokorrak erabiltzen, adibidez, "talde osoa, edo pertsonak", eta adi egon, lengoaia horrek begiraleen artean sexismoa ez dezan erreproduzitu, jokabidearen adibide gisa.



Emakumeak identifikatzen ez dituen lengoaia bat erabiltzen badugu, biztanleriaren erdia (edo gehiago) baztertzen ari gara. Baina gainera, "printzesa ederra" eta "gerlari ausarta" bezalako formulak erabiltzean geure lengoia jarrera estereotipatua erreproduzitzen ari gara.

Seguruenik badaude beste hamaika formula moderno, mutilak eta neskak beren nortasun ezberdin, dibertigarri eta askotarikoekin ikusgarri egiten laguntzen dutenak.

4.2. Irudiak

Begiratu bideoetan, argazkietan eta abarrekoetan ageri diren pertsonaiei. Sexismo motaren bat erreproduzitzen dute? Irudien protagonista beti mutil aktibo, indartsu eta ahaltso bat denean, edo neskek mendetasun jarrera batean daudenean edo pertsonaia sekundarioak direnean, mutilak garrantzitsuagoak diren mundu bat irudikatzen ari gara, sinbolikoki. Aldi berean, hainbat formatutan (ikus-entzunezkoetan, publizitatean, ipuinetan, jostailuetan, komunikabideetan, telebistan, interneten...) agertzen diren irudiek mutilak eta neskek modu estereotipatuan irudikatzen dituzte.

Horrela, neska sexy, sentikor eta zaintzaileak izango lirateke nesken rol ohikoenetako batzuk. Bestetik, mutil aktibo, indartsu eta lehiakorrak dira berezko rol maskulinoak. Rol horiek mesedetzen dute rol horien antzekoak ez diren mutilak eta neskek baztertuta sentitzea, eta eredu horiekin bat ez etortzeak dakarren presio guztia pairatzea.



Pentsa ezazu neska edo mutil izateko modu asko daudela, komunikabideek (adibidez reality showek) erakusten dizkigutenak baino askozaz ere gehiago.

Talde osoa askozaz ere hobeto sentiaraz dezakegu estereotipatutako rola erreproduzitzen ez dituzten irudiak bilatzen baditugu; mota askotako irudiak, portaera ezberdinekin, neskek eta mutilak jarrera "ez tradizionala" erakusten dituztenak. Adibidez: neska super heroi aktiboa; mutil bat beste bat zaintzen; mutilak eta neskek talde batean jarduera berak egiten, elkarrekin helburu bera lortzeko lan eginez... Irudi hauen garrantzia ikaragarria da, beraientzat erreferentziazko ereduak direlako.

Askok egin dezakegu eredu horiek beti berdina izan ez daitezen saiatuz.

4.3. Liburuak eta material didaktikoa

Jardueretan erabiliko ditugun material, liburu eta ipuinei ere analisi kritikoa egin diezaiekegu. Nortzuk ageri dira protagonistak? Nolako jarrerak sustatzen dira? Mutil eta neska protagonisten kopuruak orekatuak dira? Mutilen jokabideak indartsuak eta ahaltsoak dira beti? Aniztasun sexuala aipatzen da, inola ere?

Mundua ikuspegi androzentriko, sexista eta heterosexual batetik ulertzeak, batzuetan, estereotipoak erreproduzitu gabe lan egitea, jolastea eta dibertitzea galarazten digu. Aitzitik, badaude material asko baterako hezkuntzaren ikuspegia daukatenak, pertsona guztiak kontuan izaten dituztenak, eta neskek eta mutilak modu ezberdinetan agerrarazten dituztenak edo rolekin ikuspegi dibertigarri eta ludiko batetik jolastea ahalbideratzen dutenak. Horrelakoak aurkitzeko, dauden materialetan arakatu behar duzu (adibidez, gidaliburu honetan gomendatzen dizkizugun artean), edo erabili ohi dituzun materialen planteamendua nola aldatuko zenuke pentsatu ahal duzu, zeure esperientziatik abiatuta.



Ikuspegi kritikoa zeure baitan hasten da. Lehenengo urratsa erraza da: galdetu zeure buruari materialek nesken eta mutilen beharrezko neurri berdinean erantzuten dieten... eta ez bada hala, erabil itzazu kritika gisa, edo pentsatu nola egingo zenukeen zuk.

4.4. Ekintzako baliabideak eta espazioak

Baliabideak eta espazioaren erabilera banatzeko orduan, garrantzitsua da modu orekatuan egiten ari ote garen pentsatzea. Adibidez: mutilek baliabide gehiago daukate erabilgarri, edo baliabideok handiagoak dira? Eta neskek ekintzako baliabide guztiak erabiltzeko erraztasun bera daukate, edo (beren jarrerarekin bada ere) gehiago "mozten dira"?

Pentsa ezazu kontua ez dela neskek gauza gutxiago nahi izatea, jarduera gutxiago eskatzea edo espazio gutxiago behar izatea. Gizarteratze ezberdina da. Neskei txikitatik erakusten zaie "konformatu behar direla, ez dutela eskatu behar, are gutxiago exijitu, eta zintzo-zintzo egon behar dutela". Mutilei, berriz, askatasun eta mugimendu gehiago onartzen zaie, "umeak dira, mugitu behar dute" eta antzeko esaldiekin justifikatuta.

Gizarteratze ezberdina bizi dutenez gero, neskek askotan esaten dute espazio txiki batean egoten konformatzen direla, edo ez dutela gehiagorik behar. Pentsa ezazu, gutxienez, hori neska jakin baten ezaugarria den, edo gure gizartean mutilek baino garrantzi txikiagoa dutelako esaten duen. Kasualitatea al da beti mutil taldeek espazio gehiago okupatzea, eta beti hedatzeko joera izatea? Kasualitatea al da nesken arteko harremanak hizkuntzan oinarritzea eta talde txikietan egotea?



Kasualitate hutsa dela uste baduzu, berrikusi materialetako batzuk eta berriro hausnartu, eta berrikusi zeure jarrera eta jokabideak. Agian neskek gehiago animatu ahal ditugu parte hartzera, "exijitzera", baliabideak eta espazioak erabiltzera, eta espazioen jaun eta jabe direnak gainerakoei apur bat gehiago uztera animatu ahal ditugu. Geure adibidearekin eta ohiko mugimenduak behatzearekin (apur bat aldatzeko eta txandakatzeko) asko egin dezakegu.

Adibidez, saihestu "aukera librea". "Librea" hitza hor dago, baina ez da benetakoa, ikasitakoaren eta aurreiritzien mende baitago, neskek eta mutilek beren bizkarrean daramaten historiak kutsatuta. Egituratu espazioak eta denborak, orekatuak izateko moduan. Horrela, benetako askatasuna, berdintasunez, existitzeko aukera sortuko duzu.

4.5. Teknologia berriak

Aisialdiko jarduerak ohiko ingurunetik deskonektatzeko eta naturarekin eta espazio naturalekin bat egiteko espazioak direla pentsatzen dugunean, sarritan ahazten dugu teknologia berriak neska-mutilen eguneroko bizitzan daudela. Teknologia berrien erabilera planteamendu didaktiko gisa sartzen badugu, agian lor genezake jardueretan erakusten dieguna beren eguneroko bizitzan sar dezatela, eta ez dadila izan bizitza errealeko "deskonexio" hutsa.

Pentsa ezazu teknologia berriak ekintzetatik baztertu beharrean ekintzetan txertatu ahal ditugun, egiten dugun jolasa edo ekintza urrunago irits dadin eta ekintzako taldeak elkarrekin konekta daitezzen, adibidez, helburu berbera lortzeko, edo teknologia berriak berdinen arteko erabilera parekideagoaren eta errespetuzkoagoen adibide izan daitezzen.



4.6. Jolasa

Aisialdiko ekintzako programazio batean jolasaz ari garenean, generoa lantzeko ikuspegia "berdintasuna lantzeko jolasetara" muga genezake, dinamika zehatzak sortuz eta aspergarriagoak izan ohi direla pentsatuz, gainerako jolasak baino didaktikoagoak direlako. Baina bada beste ikuspegi bat, zeharkakoa, gidaliburu honetan sustatu nahi duguna: alegia, jolas guztiek baterako hezkuntzako alternatiba bat izan dezaketela ulertzea.

Jolas jakin bat iraupen jakin batekin lantzea alferrik da baldin eta gero, gure jarrera eta portaeretan, aisialdian edo gainerako jardueretan ez badugu genero ikuspegia txertatzen. Horregatik, egin behar duzun lehenengo gauza "berdintasunaren inguruko jolas bat egiteko" ideia burutik kentzea da. Horren ordez, "egiten dugun guztiari buelta eman, jolas batek ere ez dezan sexismoa erreproduzitu".

Sexismora, indarkeriara edo estereotipoen sorrerara garamatzaten jolasak baztertu behar ditugu, adibidez "aita eta amen jolas tradizionala, polizia eta lapurrak, edo onak eta gaiztoak". Heterosexualitatea arau gisa irudikatzen duten jolasak edo portaera jakin batzuk normaltzen dituztenak (musuen jolasak esate baterako) birpentsatu ahal ditugu, gutxienez ikuspegi kritiko batekin egin ahal izateko.

Pentsa ezazu jolasik tradizionalenak ere baterako hezkuntza izan daitezkeela, zenbait konzeptu txertatzen baditugu, hala nola, nesken eta mutilen arteko lankidetzaren helburu berbera lortzeko, parte hartzen duten pertsonen protagonismo orekatua, rolak gainditzea, mitoak haustea, edo finkatutako estereotipoen kritika.



4.7. Taldeak

Taldeetan finkatzen diren dinamika eta erlazioa aztertu behar dira, era berean, baterako hezkuntzako praktika bat egiterakoan. Taldean gertatzen diren elkarreraginak, lidergoa nortzuk daukaten, gatazkak modu baketsu baina parekidean konpontzen diren edo ez eta nesken parte hartzea aintzat hartu beharreko ezaugarriak dira.

Hain zuzen ere, gerta daiteke mutilak izatea lidergoa izan ohi dutenak edo parte hartze aktiboago bat izatea lan instrumentaletan, eta neskek zaintza edo txukuntze lanak egitea.

Lidergoa aldatzen edo txandakatzen saiatzean, edo neskek eta mutilak gutxien egiten dituzten eginkizunak burutzerara animatzean, agerian geratzen da ez dagoela "nesken edo mutilen berezko eginkizunik", pertsona guztiok izan ditzakegulako trebezia berak, eta lankidetzaren eta erantzukidetasuna, berdintasunean, direla helburua.



4.8. Begiraleak

Azkenik, baina ez garrantzi gutxirekin, jarduerako begiraleak izan behar ditugu kontuan, neska-mutil hauentzat eredu baitira. Zu, jarduerak dinamizatzen dituzun pertsona, antolatzailea edo laguntzailea zaren aldetik, egiten dituen jardueren bidez hezten duen norbait baino askozaz ere gehiago zara. Praktikan eredu bat zara, zeure jarrera eta portaerekin, adingabekoen taldeentzat eta jarduerako lankideentzat.

Egiten duzuna, besteei nola hitz egiten diezun, zein trebeziarekin identifikatzen zaituzten... Hori guztia adibidearen transmisioa da, eta horregatik, asko egin dezakezu nesken eta mutilen berdintasuna sendotzeko eta bazterketa eza bultzatzeko. Tratu parekidean eta errespetuzkoan eredu garria izan zaitezke, dibertsitatea normaltasunez onartuz, mutilen edo nesken berezko portaerarik ez dagoela ulertuz, norberaren aukerak errespetatuz, zailtasun gehien dituzten pertsonak animatuz, eta errespetu faltaz edo bortxakeriaz jarduten duten pertsonen mugak ipiniz.

Zu, emakumezko begirale, adibidea zara ikusten zaituzten neska guztientzat, modu aktibo eta ausartean jokatzeko duzunean, eta mutil bati laguntza eskatu gabe jolasten duzunean edo jarduera instrumentalak egiten dituzunean. Zu, emakumezko begirale zaren hori, eredu garria zara koordinazioko batzarretan zeure iritzia ematean lotsatzen ez zarenean, nahiz eta mutilek osatutako talde baten aurrean hitz egiten aritu, edo neskek dauzkaten premiei garrantzia ematen diezunean, taldearen erdia neskek osatzen dutela ahazten ez duzunean eta agian zer nahi duten galdetu behar zaiela gogora ekartzen duzunean.

Zu, gizonezko begirale, adibide zara beste pertsona batzuk zaintzen dituzunean, zaintza ez baita emakumezkoen lana berez. Adibidea zara erakusten duzunean sentikorra izan zaitezkeela, zure ohiko rolaekin zerikusirik ez duten jardueretan dibertitu ahal zarela eta horrelakoek interesa piztu ahal dituztela, eta mutilei erakusten diezunean portaera errebeldea izan ez arren "gizona" izaten segitzen duzula. Zuk, gizonezko begirale zaren horrek, portaera eredu garria daukazu emakumezko lankideekin batera berdintasunean jarduten duzunean, zure erabakimen berbera daukaten solaskideak direla onartzen duzunean, eta beraien iritzia eta ezadostasunak koordinazio erabakietan txertatzen dituzunean.



5. INDARKERIA MATXISTAREN PREBENTZIOA POSIBLE AL DA?

Indarkeria matxistaren prebentzioaz ari garenean, kontzeptua definitu behar dugu aurrenik. Genero indarkeria legeak definitzen duen moduan bakarrik ulertzen baldin badugu (hau da, bikote heterosexual baten barruan gertatzen dena) eta, gainera, indarkeria bortxakeria fisikoa bakarrik dela uste badugu, ezer gutxi egin ahalko dugu, indarkeria hori nabaria den kasuetan esku hartzeaz gain. Ordea, indarkeria sexistaz ari garenean indarkeria fisikotik haratago goaz. Kontzeptu honen barruan geure gizartean dauden eta neskek, neska direlako, pairatzen duten indarkeria mota asko sartzen dira. Ez gara ari soilik bikotean jazotzen den indarkeriaz, baizik eta berdinaren artean gertatzen den indarkeriaz, kalean edo neskek eta mutilak elkarrekin dauden gainerako espazioetan (jardueretan ere bai).

Indarkeria sexistak aurpegi ugari ditu, eta neskek pairatzen dute beren gorputzarekin, bere askatasun sexualarekin, beren erabakimenarekin edo beren bizitzaren gaineko kontrolarekin zerikusia daukaten kontuetan. Bada beste indarkeria bat, indarkeria matxista alegia, neskei nahiz mutilei beren sexu, genero edo sexualitateko rola betearazten diena. Hau da, indarkeria mota hau portaera sexuarekin, jokabide sozialekin, rolean, itxura fisikoan eta abarrekoetan beren generoko rola betetzen ez duten neska-mutilen aurkakoa da. Biztanleria bi eredu dikotomiko eta bereizitan banatu nahi duen lerro zapaltzailea gainditzen dugunean gertatzen da.

5.1. Zergatik hitz egiten dugu prebentzioaz?

Prebentzioaz ari garenean, azpimarratzen ari gara neskek eta mutilak modu parekidean hezteak botere edo desoreka harremanak sortzea prebenitzen duela, horrelakoak baitaude indarkeria matxistaren jatorrian. Botere harremanak sustatzen dituen gizarteratze berezia aldatzeko, ezinbestekoa da familiarengandik, eskolatik, ingurune sozialetik eta komunikabideetatik jasotzen dituzten mezuen artean koordinazioa egotea.

Horrek esan nahi du dena ez dagoela gure esku, eragin mota asko daudelako. Baina badaukagu geure ekarpena egitea. Geure jardunaren bitartez neskei eta mutilei berdintasunean eta errespetuz elkarrekin egoten irakasten badiegu, etorkizunean sinesmenetan eta aurreiritzietan oinarritutako jarrera eta jokabideei aurrea hartu ahalko diegu. Horregatik, gure jarduna funtsezkoa da nerabezaroaren aurreko aroan eta nerabezaroan, neskek eta mutilak orduan hasten direlako beren burua sexualki identifikatzen, beren gorputz sexuduna ezagutzen, beste sexuarekin modu berezian egoten, afektu eta sexu harremanak izaten, edo beren desira eta orientazio sexualak ezagutzen.

Jardueretan ikuspegi ludikoarekin eta denboraldi jakin batean lan egiten da, baina eguneko 24 orduetan elkarrekin bizi da jendea, etxetik urrun. Geure lanean baterako hezkuntza txertatzen badugu, agian lor genezake mutil edo neska batzuk beren bizitzan estreinako aldiz "gizonago" edo "politago" izateagatik gehiago baloratzen ez dituzten espazio batean bizitzea, edo mutila edo neska izateko eta bizitzeko eta elkarrekin bizitzeko modu ezberdinak aurkitzea, ezberdintasun guztiak errespetatuz betiere.

Baliteke begirale gisa daukazun eragina eta ematen duzun adibidea izatea, hain zuzen ere, beste pertsona batzuk gogoeta egitera bultzatzen dituztenak. Zergatik ez pentsatu, orduan, prebentzioa funtsezkoa dela?

Idea horietako asko "txantxa" moduan adierazten dira. Horrela, txantxa zuzentzen zaion pertsonak aurre egiten badu, umore gutxi daukala leporatzen zaio. Txantxa bat inoiz ez da barregarria norbait umiliatzen duenean edo giza talde bati edo giza ezaugarri bati iseka egiten dienean. Bizitzaren alderdi askoren aurrean barrez leher gaitzke, baina beste pertsona bat umiliatzearen ondorioz barrez hasten bagara, indarkeria zuritzen ari gara nolabait.

5.2. Nola esku hartu?

Lehenik eta behin, aisialdiko jardueretan zenbait kasutan zuzenean esku hartu beharko genuke: indarkeria kasu bat detektatzen dugunean, bikote batean neskaren mugimendu guztiak kontrolatzen direla jakiten dugunean, neska baten aurkako jazarpena atzematen dugunean (bere itxura fisikoarengatik iraintzen dutenean), pertsona homosexual baten aurkako jazarpena ikusten dugunean, edo norbait bere gogoaren kontra ukitzen dutela atzematen dugunean³.

Egoera hauek "jokoak", "garrantzirik gabeko gauzak" edo "gaztetxoen kontuak" direla onartzen ez badugu, bide onetik goaz. Hori dena ezer egin gabe, modu pasiboan, ikusten badugu, geure jarrerarekin aditzera emango dugu honelako portaerak arruntak direla, eta horrenbestez zenbait ideia indartuko ditugu, adibidez neska bati behin eta berriro ligatzeko eskatzea "ez dela hainbesterako" edo haren "mutil-laguna apur bat posesiboa izateagatik ez dela ezer gertatzen".

3. Eranskinean indarkeria matxistaren adierazle batzuk eta zenbait sinesmen sexista aurkituko dituzu. Horiek lagungarri izango zaizkizu lan garrantzitsu bat egiten: hau da, eten behar diren jokabideak detektatzen. Gainera gogoeta egin ahalko duzu beraien normalizazio mailaz eta horiek jasotzen dituzten pertsonen gaineko inpaktuaz.

Indarkeriaren normalizazioa da neskei indarkeria identifikatzea eragozten dien alderdirik kezkarriena, eta hori da hain zuzen ere geure esku hartzea eta gure heziketa bideratu ahal dizkiogun ezaugarria:

- Bikotea bizitzako helburu nagusia delako ideia deseginez.
- Maitasuna lortzeko sakrifizioak eta borrokak beharrezkoak direlako mitoak gaindituz.
- Tratu oneko harremanetan bakoitzak bere espazioak dituela onartu behar dela geure adibidearen bitartez erakutsiz.
- Bakoitzaren erabakimena eta askatasuna eskubide diren aldetik normalduz.
- Norbait sexu harreman bat izatera behartzea plazera ez dela gogoraraziz.
- Bakoitzaren berezko itxura fisikoa polita dela eta denok ezberdinak garela erakutsiz.

Neska baten aurkako indarkeria kasu bat ikusten badugu, batzuetan bien artean modu pribatuan konpontzen saiatzen gara, edo mutila barkamena eskatzera behartzen dugu. Horrela, gure asmoa arazoa konpontzea den arren, arazoaren parte diren pertsonen eta lekukoen ulertzerara ematen diegu indarkeria barkatu egin daitekeela; indarkeria hori normaltzen eta justifikatzen ari gara.

Indarkeriazko gertaera bat jazo denean, esku hartzeko modurik onena da, lehenik eta behin, gertaerari geure lanean garrantzia eta lekua ematea, koordinatzaileei jakinaraztea, esku hartu eta erabakiak har ditzaten, eta talde osoarekin konponketa hezitzaile bat aurkitzea. Portaera horren atzean egon den indarkeria identifikatu behar da, eta portaera bortitza errefusatzeko adibide bihurtu behar da. Gainera, gogorarazi behar dugu gainerako pertsonak errespetatzea ezinbestekoa dela jardueran. Gertatu dena ez da isilpean gorde behar, baizik eta egoera aprobetxatu, gogoeta sustatzen duen eta gatazken konponketa, berdintasuna eta errespetua mesedetzen dituen jardueraren bat egiteko. Horixe da bultzatu behar den estrategia.

Koordinatzaileek kontuan izan beharko dute neskaren eta mutilaren familiekin harremanetan jarri behar dutela, adingabekoak direlako, edo berdintasun arlo bati edo indarkerian esku hartzen duen arlo bati laguntza edo babesa eskatu beharko diete, kasu horretaz ardura daitezten.

5.3. Nola prebenitu?

Aisialdiko jardueretan, esku hartzeko ahalmen handiena eskaintzen diguten alorrak prebentzioa eta sentsibilizazioa dira. Izan ere, jarduerak aisialdiko espazio bat dira, non mutilak eta neskek elkarrekin bizi diren, eta guk, bertan egonez, presentzia hutsa edukitzeaz gain, balioetan hezten ditugu ikasleak. Egiten ari garenaren bidez neska-mutil hauek hezten ari garela jakitea funtsezkoa da, sexismoa eta portaera bortitzak prebenitzean bete dezakegun papera ulertzeko.

Begirale gisa daukagun eragina erabil dezakegu, neskeganako errespetuaren adibide onak izanik.

Joko eta jarduera jakin batzuk erabil ditzakegu, nesken, mutilen eta harremanen kontzeptu sexistaren atzean dauden ideiak, mitoak, estereotipoak eta sinesmenak desegiteko.

Mutilak eta neskek elkar ezagutzen eta harremanen munduan sartzen hasten diren lehen une horiek balia ditzakegu, okerreko sinesmenak gezurtatzeko eta dibertsitate sexualen askotarikotasuna agerian uzteko.

Neska eta mutil gazteen arteko indarkeria gertatzen den moduaren inguruan sentsibilitatea sor dezakegu, beraiek indarkeria hori identifikatzeko gai izan daitezen.

Mezuak, ipuinak, pelikulak, bideoak eta abarrek erabil ditzakegu elkarrekin hausnartzeko emakumeen irudiari buruz, tratu zuzeneko harremanei buruz eta dibertsitatearen errespetuari buruz.

Neskei eta mutilei modu baketsuan eta erantzukizuna konpartituz elkarrekin bizitzen erakutsi ahal diegu.

Eta zuk zer gehiago egin dezakezu, zure ustez?

1. ERANSKINA: Genero ikuspegia duen plangintza egiten ari garen edo ez jakiteko galderak

Ondoko koadro hauek ekintzen plangintzaren arduradunei laguntzeko tresna dira.

Informazio bilketako fasea

Hasi baino lehen, galdetu hau zeure buruari:	Bai	Ez
Ekintzen testuinguruari buruzko informazioa bilatzen da alde zuzenetik? Kulturari buruz? Gizarte testuinguruari buruz? Ingurumen testuinguruari buruz?		
Badakigu zenbat neskek eta zenbat mutilek parte har dezaketen jardueretan? Informazioa sexuaren arabera banatuta daukagu?		
Zentroen ekipamenduaren berri badakugu?		
Zentroen egitura ezagutzen dugu?		
Badakigu zentroak dibertsitate funtzionala daukaten pertsonentzat egokitu dauden?		
Badakugu lan egiteko dauden baliabide materialen berri?		
Material horiek genero ikuspegitik analizatu dira?		
Aurreko urteetan egindako txostenak berrikusi dira?		
Txosten horietatik informazio zehatza, sexuaren arabera banatuta, atera dugu?		
Aurreko urteetako txostenetan identifikatutako oztopoak sexuaren arabera banatuta deskribatzen dira?		
Jardueretan aurkitutako premia eta arazoak sexuaren arabera banatuta identifikatu dira?		
Informazioa jasotzea genero berdintasuneko emaitza bat lortzera bideratuta dago?		
Aurreko urteetan jardueretan parte hartu zuten begiraleei buruzko informazioa, sexuaren arabera banatuta, badakugu?		
Begiraleek aurkitu zituzten arazoei buruzko informazioa bilatu dugu?		
Eztabaida taldeak, galdetegiak edo antzeko teknikak erabili dira informazio hori lortzeko?		

Sistematizazio fasea

Gertatzen dena jakiteko...	Bai	Ez
Jarduerako egoera orokorra zehazten da lortutako informazioa aztertu ondoren?		
Egoeraren definizioan generoaren aldagaia baloratzen da?		
Badaukagu jarduera doazen ume eta nerabeen ezaugarrien errepresentazioa?		
Arazoak eta premiak sexuaren arabera agerrarazten dira?		
Jarduetara doan jendearen beharrez ezberdinak kontuan izaten dira?		
Neskek jardueretan dauzkaten eragozpen bereziak agerrarazten dira?		

Plangintza fasea

Plangintza genero ikuspegiarekin nola egin	Bai	Ez
Baterako hezkuntzaren praktikaren justifikazio bat planteatzen da?		
Justifikazio horrek marko teoriko feminista dauka?		
Berdintasun helburuak sustatzen ditu?		
Helburuek mutilen eta nesken premia eta interesari erantzuten diete?		
Mutilen eta nesken bizikidetzak hobetzeko helburua daukate?		
Jardueraren barruan aukera berdintasuna lortzen laguntzen dute?		
Berdintasuna mesedetzeko helburu bereziak artikulatzen dira? Generoko estereotipoak desagerrarazi nahi dituzte? Generoko rolak eraldatu nahi dituzte? Nesken parte hartzea errazten laguntzen dute?		
Jardueretan planteatutako estrategiak mutilen eta nesken arteko berdintasuna mesedetzen du?		
Estrategiak sexuaren arabera sor daitezkeen premia eta arazo ezberdinak tratatzen ditu?		
Estrategiak nesken parte hartzea sustatzeko ekintza positiboak hartzen ditu barnean?		

Plangintza genero ikuspegiarekin nola egin	Bai	Ez
Diseinatzen diren jarduerak neskei nahiz mutilei zuzenduta daude?		
Jardueren xedea genero estereotipoak eta aurreiritziak haustea da?		
Baterako hezkuntzako praktika diseinatzen duen lantaldean berdintasunean eta generoan espezializatutako pertsona bat dago?		
Jardueraren barruko erantzukizunak begiraleen artean banatzerakoan, generoaren irizpidea erabiltzen da nolabait?		
Lanen banaketa berdintasunez kudeatzen da?		
Idatzitako guztiak tonu ez sexista erabiltzen du?		

Gauzapen fasea

Bide onetik goazen jakiteko...	Bai	Ez
Gizonezko eta emakumezko begiraleen proportzioa orekatua da?		
Mutilen eta nesken arteko aukera berdintasuna mesedetzen duten praktikak erabiltzen dira?		
Proposatutako metodo eta teknikak berdintasunezko parte hartzea mesedetu nahi dute?		
Hasierako galdetegi bat egiten zaie begiraleei beraien genero aurreiritziak jakiteko?		
Jarduerako parte hartzaileei hasierako ebaluazio galdetegi bat egiten zaie, beraien genero aurreiritziak jakiteko?		
Begiraleei jakinarazten zaie nolako jarrerak izan behar dituzten genero aurreiritziak saihesteko?		
Jarrera horiek lehen aipatutako berdintasun estrategiarekin bat datoz?		
Parte hartzaileei izan behar dituzten berdintasunezko arau eta jarrera ez baztertzailen berri emateko asmorik badago?		
Jardueran gatazkak konpontzeko metodologia berdintasunean eta bazterketa ezean oinarritzen da?		
Begiraleei horren berri ematen zaie?		

Ebaluazio fasea

Nola jakin ebaluazioa genero ikuspegiarekin egiten dugun	Bai	Ez
Praktikaren adierazleak eta helburuak sexuaren arabera banatuta daude?		
Adierazleak badaukate zerikusirik berdintasunaren inguruko helburuekin?		
Berdintasunaren helburu eta emaitzei jarraipena egiteko asmorik badago?		
Esku hartzearen berdintasunaren dimentsioen ebaluaziorik egongo da?		
Baterako hezkuntzako praktikaren bidez egindako aldaketak ebaluatzeko asmorik badago?		
Baterako hezkuntzako praktikaren eragin positibo eta negatiboak kontuan izan dira?		

Begirale gisa baterako hezkuntzako praktika egiten ari garen jakiteko galderak

Baterako hezkuntzako osagaia	Nik, begirale naizen aldetik, hau galdetu ahal diot neure buruari:	Bai	Ez
Lengoaia, nortasunaren sinbolo	<ul style="list-style-type: none"> Neskekin eta mutilekin lengoaia estereotipatua erabiltzen dudanean esaten jakingo nuke? Lengoiaren barruan generoko estereotipoak detektatzen jakingo nuke? Hitz egiten dudanean, adjektibo ezberdinak erabiltzen ditut mutilekin eta neskekin? Neskekin hitz egiten dudanean, ez dut egiten mutilekin bezala? Badakit lengoaia inklusiboa edo ez sexista erabiltzen? Txostenak egitean mutilak eta neskak identifikatzen ditut? Badakit detektatzen materialetan lengoaia sexista erabiltzen den? 		
Irudi sexistak eta ez sexistak	<ul style="list-style-type: none"> Irudiekin lan egiten dudanean, agertzen diren mutil eta neska kopuruei erreparatzen diet? Irudietan mutilak bakarrik agertzen diren egiaztatzen dit? Generoko estereotipoak dauzkaten irudiak identifikatzen ditut? Neska-mutilei irudi bat estereotipatua den edo ez jakiteko klaberik ematen diet? Erabiltzen ditudan irudi eta bideoetan, neskak jarrera pasiboan agertzen dira? 		

Baterako hezkuntzako osagaia	Nik, begirale naizen aldetik, hau gal- detu ahal diot neure buruari:	Bai	Ez
Lanerako erabiltzen ditugun materialak	<ul style="list-style-type: none"> . Ipuinetan edo laneko materialetan kontatzen den istorioa generoko patroia estereotipatueta oinarritzen da? . Nesken istorioak maitasunari edo fantasiari lotuta egon ohi dira? . Mutilen istorioak abenturari eta dibertsioari lotuta egon ohi dira? . Lantzen ditudan materialetan mutilen pertsonaia gehiago daude? . Material horietan igortzen diren mezuak aztertzen ditut? . Material, ipuin edo liburu honetan bidaltzen diren mezuek mutilen eta nesken arteko berdintasuna sustatzen dute? . Gizonezko pertsonaiak indartsuak eta ausartak dira? . Emakumezko pertsonaiak gozoak eta maitekorak dira? . Emakumezko pertsonaiak zaintzaile rola betetzen du eta gizonezkoak babes rola? . Neskak txikiak eta ahulak dira? . Mutilak handiak eta indartsuak dira? 		
Baliabideak	<ul style="list-style-type: none"> . Baliabideak banatzen ditudanean berdintasunez egiten dut? . Ekintzako elementuak mutilentzat eta neskentzat sailkatzen ditut? Adibidez sokasaltoko sokak neskentzat, baloiak mutilentzat, etab. . Baliabide guztiak mutilengana nahiz neskengana irits daitezten saiatzen naiz? 		

Baterako hezkuntzako osagaia	Nik, begirale naizen aldetik, hau gal- detu ahal diot neure buruari:	Bai	Ez
Elkarrekin aritzen garen espazioak	<ul style="list-style-type: none"> . Espazioak banatzeko orduan mutilek eta neskek okupa ditzaten saiatzen naiz? . Neskek mutilek baino espazio txikiagoa har ez dezaten saiatzen naiz? . Neskak eta mutilak denen espazioetan parte hartzeraz gonbidatzen ditut? . Pertsonarik lotsatienek parte har dezaten saiatzen naiz? . Pertsona guztiak protagonismo berdina izan dezaten saiatzen naiz? . Neskak eta mutilak espazioen banaketari buruzko gogoeta egitera gonbidatzen ditut? . Espazioa banatzeko estrategia berriak proposatzen ditut? 		
Teknologia berriak, baterako hezkuntzako tresna	<ul style="list-style-type: none"> . Teknologia berriak neure praktikan txertatzen ditut? . Hala egiten dudanean, modu kontziente eta kritikoa egiten dut? . Parte hartzaileak teknologia berrien erabilerari buruz pentsatzera gonbidatzen ditut? . Integrazio hori berdintasuna sustatzera eta jarrera eta portaerak aldatzera zuzenduta dago? 		

Baterako hezkuntzako osagaia	Nik, begirale naizen aldetik, hau gal- detu ahal diot neure buruari:	Bai	Ez
Jokoak, ikasteko bitarteko	<ul style="list-style-type: none"> . Generoko rolak haustea mesedetzen duten jokoak egiten ditut? . Jokoek geure genero eraikuntzaz gogoeta egitera gonbidatzen gaituzte? . Joko tradizionalak berdintasuna mesedetzeko moduan aldatzen jakingo nuke? . Jokoak modu baketsuan egiten dira? . Jokoek eraso eza bultzatzen dute? . Jokoek neskak eta mutilak parte hartzea bultzatzen dituzte? . Jokoren baten helburu zehatza berdintasuna sustatzea da? . Proposatzen ditudan jokoak estereotipoetatik aske daude? . Jokoek genero estereotipoen gogoeta egitera gonbidatzen gaituzte? . Egiten diren jokoek jokabide eredu berriak eskaintzen dituzte? 		
Taldeak, berdintasunean elkar eragiten	<ul style="list-style-type: none"> . Taldeen barruan lanak banatzen ditudanean, berdintasun irizpideak izaten ditut? . Erantzukizunak talde barruan eztabaidatzen dira? . Taldeak eratzen ditudanean, mutilek eta neskek modu orekatuan osa ditzaten saiatzen naiz? . Taldeko lidergoa beti mutilena izan ez dadila lortzen dut? . Nesken eta mutilen berdintasunezko parte hartzea bultzatzen dut? . Taldeen barruan berdintasunezko elkarreragina sustatzen dut? . Taldeen barruan bazterketa egoerak ekiditen ditut? . Taldeen barruan indarkeria egoerak ekiditen ditut? 		

Baterako hezkuntzako osagaia	Nik, begirale naizen aldetik, hau gal- detu ahal diot neure buruari:	Bai	Ez
Emakumezko begiralea eta gizonezko begiralea	<ul style="list-style-type: none"> . Berdintasunari, generoari edo baterako hezkuntzari buruzko prestakuntza berezirik jaso dut? . Baterako hezkuntzako praktikak egiten irakatsi didate? . Neure lana egiteko nire jarrerak garrantzitsuak direla ulertzen dut? . Nire jarrerak eta nire diskurtsoa bat datoz? . Mutilak eta neskak ezberdinak direla pentsatzen dut? . Neskak mutilak baino gozoagoak direla uste dut? . Mutilak neskak baino trebeagoak direla uste dut? . Mutilak indartsuagoak direla uste dut? . Mutilik edo neskarik ez baztertzen saiatzen naiz? . Neure emakumezko eta gizonezko lankideekin portaera baztertzailek ez izaten saiatzen naiz? . Gatazka bat dagoenean modu baketsuan konpontzeko gai naiz? . Gatazka bat konpontzeko berdintasunezko klabeak emateko gai naiz? . Gatazka baten atzean genero indarkeria noiz dagoen ulertzen badakit? . Mutil bati edo neska bati bere portaerari buruz gogoeta egin arazteko gai naiz? . Berdintasuna mesedetzen duten portaerak eskaintzen ditut? . Portaera baztertzailerik berdintasunezko portaera bihurtzen saiatzen naiz? 		

2. ERANSKINA: Indarkeriaren kontzeptualizazioa

Emakumeek alde bakarreko *indarkeria* jasaten dute, sexu eta genero harreman desorekatuetan azpiko posizioan daudelako. Indarkeria mota horrek izen ezberdinak jaso ditu (*emakumeen aurkako indarkeria*, *genero indarkeria*) edo bestelako kontzeptuetan urtu da (*etxeko indarkeria*, *bikoteko indarkeria* edo *familia barruko indarkeria*). Izendegi oparo horrek ez du eztabaida teoriko hutsa islatzen, asmo politikoa baitu: indarkeria hau nola izendatzen dugun kontuan izanik, nola ulertzen dugun eta zein kausari leporatzen zaion ondorioztatuko dugu, nori eta nola eragiten dion zehaztuko dugu eta, horrenbestez, indarkeria horretan esku hartzeko ikuspegia eta estrategiak definituko ditugu.

Horrela, kontzeptuetako bakoitzean indarkeriaren aldeetako bat nabarmendu ahal dugu: nork sufritzen duen eta nork aurre egiten dion, nork egiten duen edo zergatik gertatzen den. *Emakumeen aurkako indarkeria*, esate baterako, deskribapenezko kontzeptua da, oso erabilia. Adostasun zabala bereganatu omen du, eta hori oso ulergarria da, indarkeria pairatzen duen subjektua azpimarratzen duelako. Ordea, izenean ez du barneratzen indarkeriaren kausa, eta horrek anbiguotasun puntu bat ematen dio, nahasgarria suertatzeraino, emakumeek indarkeria mota asko jasan ditzaketelako, oso egoera ezberdinetan.

Testuan zenbait kontzeptu erabili ditugu. Hona hemen bakoitzaren azalpena:

INDARKERIA MATXISTA

Gorputzei, jairo aurretik, arau genital baten arabera *ar/gizon* edo *eme/emakume* etiketa jarri zaie. *Esentzia* horri, hortaz, gizonezko edo emakumezko portaera dagokio berez, hurrenez hurren. Baina portaera horiek rol sozial arbitrario, dikotomiko eta hierarkiko hutsak dira. Dikotomikoak diogu, batetik aurkako nortasunen arabera azaltzen direlako. Hau da, maskulinoa dena ez da femeninoa, eta alderantziz. Eta bestetik, osagarritasun irudi faltsua eskaintzen dutelako (maitasun erromantikoa, heterosexualitatea). Eta hierarkikoak direla diogu maskulinoztat jotzen dena femeninoztat daukaguna baino hobea delako. Gainera, maskulino izendatzen duguna femenino izendatutakoa baino hobea den hierarkia bati dagokie.

Bi sexu eta generoetan portaera heterosexualaren araudia inposatzen da, berdin-berdin. Sexua-generoa-sexualitatea kontinuum honetan, giza portaeraren arau bat finkatzen denean, heteronormatibotasunaz ari gara. Mantentzeko eta ugaltzeko paradigma sozialak ziurtatzen du gorputzek sexu-genero-sexualitate eskema hori (*arra-gizona-maskulinoa-heterosexuala*; *emea-emakumea-femeninoa-heterosexuala*) osatzen dutela, hainbat mekanismoren bidez, besteak beste, zenbait indarkeria motaren bidez.

Intersex gorputzak, transgeneroak, homosexualak, lesbianak, genero eskema tradizionalak hausten dituzten emakume eta gizonak... errealitate sozialak dira, eta *normaltasunaren* parametroa den sexua/generoa/sexualitatea eskema patriarkalaren alde bakarreko harreman aldaezinari aurre egin diote betidanik.

Eskema horri, beren egitura biologikoaren bidez nahiz portaera sexualaren bitartez, aurre egiten dioten gorputz guztiak **indarkeria matxista** pairatzeko arriskuan daude, indarkeria hori sexua/generoa/sexualitatea eskema erreproduzitzen dela bermatzeko kontrol mekanismoa den aldetik.

Matxista kontzeptua nagusitasun maskulinoaren sistema eta haren muturreko tresnak izendatzeko erabiltzen da. Adiera bat baino gehiago duen arren, kategoria hori erabiliko dugu ondoko hau adierazteko: eskema horri aurre egiten dioten askotariko pertsonen bazterketa, gaitzespena, patologizazioa... sufritzen dituztela bermatzeko erabiltzen diren mekanismo ugari eta ezberdinen multzoa. Hau da, indarkeria matxistaren zenbait molde, instituzionalizatuak, trans gorputzen aurkako fobian (*transfobia*) eta sexu eta afektu aukera lesbikoen eta homosexualen aurkako fobian (*lesbofobia* eta *homofobia* hurrenez hurren) gorputzen direnak.

INDARKERIA SEXISTA

Bestalde, emakume guztiek, hau da, sexua/generoa eskema tradizionalan *emakume* gisa sinbolizatutako gorputz guztiek, indarkeria sexista jasaten dute, ez egiten dutenagatik, bai zik eta direnagatik eta irudikatzen dutenagatik. Emakumeen kasuan, beraien gorputzak ez dio normaltasunaren eskema tradizionalari aurre egin behar indarkeriaren jomuga izateko; emakume *itxura izateak* berak murrizpenak, kontrolak eta indarkeria mota eta maila ezberdinak dakartza berekin⁴.

Emakumeak femeninotasun tradizionalaren eskemari lotzeko erabiltzen diren egituren, arauen, tradizioen eta balioen presioa azpimarratzen du sexismoaren kontzeptuak. Horretarako, gizonek indarkeria erabiltzeko daukaten eskubidea baliatuz, eta beldurraren eta mehatxuen bitartez, emakumeen aurkakotasun eta erresistentzia oro zapuzten da. Baina kontzeptu horrek, gainera, azaltzen du egitura horien eta indarkeriaren helburua botere harremanak eraikitzea dela, kategoria maskulinoari balioa emateko eta kategoria femeninoari indarra kentzeko.

4. Zentzu horretan, azpimarratu behar dugu indarkeria sexista oro indarkeria matxista dela, baina ez alderantziz.

GENERO INDARKERIA

Genero indarkeria erabiltzen da indarkeria sexista (edozein modutan ere) bikotekideak edo bikotekide ohiak egiten duenean. Definizio hori bat dator *Genero indarkeriaren aurkako babes integralko neurrien Lege Organikoan* (EAOan 2004ko abenduaren 29an argitaratua) jasotakoarekin: "indarkeria fisiko eta psikologikoko ekintza guztiak (horien barruan askatasun sexualaren aurkako erasoak, mehatxuak, edo askatasuna modu arbitrarioan kentzea sartzen dira), gizonak beren ezkontide izan diren emakumeen aurka, edo antzeko harremanen bidez, elkarrekin bizi izan ez badira ere, beraiekin lotuta dauden edo egon diren emakumeen aurka egiten dituztenean".

3. ERANSKINA. Indarkeria sexistaren adierazleak eta sinesmen sexistak

Indarkeria matxista identifikatzeko, lehenik eta behin kasu zehatzetan ikusiko ote genukeen galdetu behar diogu geure buruari. Izan ezazu gogoan ez dela beharrezkoa ageriko adierazpen bat egotea indarkeria matxistaz hitz egiteko. Beraz, jarrera hauetako batzuk eguneroko jarrera normalak iruditu ahal zaizkizun arren, saiatu pentsatzen zergatik jotzen dituzun normaltzat eta jarrera horiek zurrizko mezurik entzun duzun, eta saiatu pertsona zehatzen kasu zehatzak ez analizatzen.

Indarkeria sozial eta estruktural batez ari gara, sarritan jazotzen dena, eta gizarte, kultura, adin eta maila askotan betikotzen dena. Gertaera zehatzen aitzakiarekin zurrizko gehiegitan gertatzen den nesken aurkako indarkeriaz eta genero rol tradizionalak rol onargarri bakarrak direla ulertzeaz ari gara.

Hona hemen zenbait adierazle, neska eta mutil gazteen artean sortzen diren harremanetan indarkeria matxistaren zenbait forma detektatzeko.

Bikote barruko indarkeria sexistaren adierazleak (VEC eskala)

Bikotekide duten neskarekin modu hauetako batean edo gehiagotan erlazionatzen diren mutilekin behatu, zalantzan jarri eta eztabaidatu ahal ditugun jokabideak.

- **Kontrola.** Neskak egiten duen guztia eta norekin egiten duen jakin nahi izatea. Haren janzkera, mezuak eta dauzkan lagunak kontrolatzea. Beraren ordeztu erabakiak hartzea.

- **Isolamendua.** Bizitza soziala izan dezan galaraztea, edo ahalik eta murriztena izan dadin ahalegintzea. Bete berarekin irten dadin saiartzea.
- **Jelosia.** Beste mutil batzuekin hitz egiten duenean limurtzen dituela aurpegiratzea etengabe. Modu probokatzailean janzten dela esatea. Jelosia zurrizko, maitasuna delakoan.
- **Jazarpena.** Haren mugimendu eta ekintzak zurrizko, haren atzetik ibiltzea, irteeran itxarrotea, sare sozialetan edo telefonoz jazarpena.
- **Deskalkifikazioa.** Hura kritikatzeko, mespretxuzko esaldiak esatea, iseka egitea, haren autoestimuari eraso egitea.
- **Umiliazioa.** Jendaurrean barregarri uztea, beste pertsona batzuen aurrean berari buruzko informazioa esatea, eskandaluak egitea, horretarako sare sozialak erabiltzea.
- **Manipulazio emozionala.** Nahi duena lortzeko xantaia egitea, tranpak edo maitasun probak jartzea, modu sotilean presionatzea.
- **Axolagabetasun afektiboa.** Sentimendurik ez agertzea, kasu ez egitea, denbora batez baztertzea (katigatzeko), hitz egiteari uztea edo barkamena ez eskatzea.
- **Mehatxuak.** Jo, utzi, zerbait kendu, haren lagunak onenarekin joan edo bizitza nahastuko diola esatea.
- **Presio sexuala.** Neskak nahi ez dituen erlazioak inposatzea, haserretuz edo zerbait aurpegiratu.

Adierazle horiek elkartuta egon ohi dira, taldekatuta. Halere, modu isolatuan edo "behin bakarrik gertatu diren" portaera gisa ikusi ohi ditugu, eta uste izaten dugu neskek bar-katu egin ditzaketela, maitasunaren izenean edo beste arrazoiren batengatik. Mutilek, berriz, horrelako jokabideak normaltzat jotzen dituzte, beren generoaren berezko portaerak dire-lako, eta "bere burua errespetarazten duen gizon baten" edo neskei manipulatu uzten ez dien gizon baten ezaugarriak direla uste dute.

Eguneroko eta ohiko tratua bere osotasunean ikusten saiartzea oso garrantzitsua da tratua txarrak identifikatzeko.

Sexu jazarpenaren adierazleak

Neskekin modu hauetako batean edo gehiagotan erlazionatzen diren mutilekin behatu, zalantzatan jarri eta eztabaidatu ahal ditugun jokabideak.

- Une jakin bateko harreman bat izateko asmoz neska bat presionatzea edo xantaia egitea.
- Behin eta berriro ekitea, neskak ezetz esan duen arren.
- Neska hori "urdanga" bat edo kontrakoa dela esatea, ezezkoa eman diolako.
- Behartuta ukitzea edo musukatzea, haren espazioan bortxaz sartzea.
- Haren gorputza iraintzea edo iruzkin negatiboak esatea.
- Xantaia egitea, jende guztiari zein urdanga den kontatuko diola esanez.
- Kondoia ez erabiltzen tematzea edo horrela "ez dela berdina sentitzen" esanez presionatzea.
- Argazkiak edo bideoak erabiltzea inoren aurrean umiliatzeko.

Gainera, adin horietan izan ohi diren eta nolabait sinesmen sexista baten adierazleak diren sinesmen, ideia edo mitoak identifikatu ahal ditugu.

Neskei buruzko sinesmen estereotipatuak

- Neskek, beren janzkeraz, probokatu nahi dutela pentsatzea.
- Neska bat oso mozkortuta ikustea mutil bat egoera berean ikustea baino penagarriagoa dela pentsatzea.
- Mutil askorekin irten den neska bat gaitzestea.
- Neskak lelokeriengatik haserretzen direla pentsatzea; ez direla gauza garrantzitsuak.
- Neska batek gorputz polita izatea gehiago baloratzea bizkorra izatea edo gauzak egiten jakitea baino.

Mutilei buruzko sinesmen estereotipatuak

- Mutilak sentikorrek izatea ondo dagoela pentsatzea, baina ez sentikorregi.
- Mutilek beti ligatu nahi izatea normaltzat jotzea.
- Mutilak berez oldarkorragoak direla pentsatzea.
- Askok ligatzen duen eta errebeldea den mutil bat onestea.
- Lehiakorrek ez diren mutilak "motelak" edo "maritxuak" direla pentsatzea.

Bikote eta sexu harremanei buruzko okerreko ideiak

- Kondoirik gabe askozaz gehiago gozaten dela pentsatzea.
- Mutilek ligatzeko lehen urratsa eman behar dutela pentsatzea.
- Bikotea eta seme-alabak izatea bizitzako helburu nagusia dela pentsatzea.
- Bikotekidea pentsatzen ari dena beti jakitea erromantikoa dela pentsatzea.

Heterosexualitate arautuari buruzko ideiak

- Lesbianak benetako gizon bat aurkitu ez dutelako direla lesbiana pentsatzea.
- Mutilak eta neskak lagunak bakarrik izatea ezinezkoa dela pentsatzea.
- Homosexuala izatea aldatu ahal den zerbait dela pentsatzea.
- Mutil gay bat benetako gizona ez dela pentsatzea, edo modu ez estereotipatuan portatzen diren mutilei "maritxu" iraina esatea.

4. ERANSKINA. Baterako hezkuntzarako eta indarkeriaren prebentziorako baliabideak eta materialak

Gogoan izan ezazu baterako hezkuntzari ekiteko lehenengo urratsa pentsatzea, zeure jarrera eta portaerak identifikatzea, eta beraietaz gogoeta egitea dela. Hurrengo urratsa (hau da, praktika) emateko, Interneten bidez zenbait baliabide eskura ditzakezu, jardueretan egin beharreko jardueretan txertatzeko.

1. Baterako hezkuntzari eta berdintasunari buruzko baliabideak

7 rompecuentos para 7 noches (2009)

http://www.educarenigualdad.org/media/pdf/uploaded/material/171_cuentos-madres-padres-pdf.pdf

Heziketa ez sexistarako gidaliburu didaktikoa da, gurasoei zuzendua. Kantabriako Gobernua-ren Emakumearen Zuzendaritza Nagusiak argitaratu du. Hemen argi eta garbi azaltzen zaigu ipuin miragarriek nola transmititzen dituzten rol sexistak, pertsonaien irudikapena identifikatzen da, eta ipuin bat sexista den edo ez nola jakin azaltzen da. Gainera, zazpi ipuin eskaintzen zaizkigu, rol alternatiboak dituzten protagonistekin. Ipuinetako batzuk 6 eta 12 urte arteko neska-mutilei zuzenduta daude, eta ipuin miragarrietan agertu ohi zaizkigun rol tradizionalei buelta emateko adibide izan daitezke, edo ipuinekin landu nahi ditugun jardueretan sar ditzakegu.

¿Bellas o bestias? Las mujeres en el cine de dibujos animados (2004)

http://institutoasturianodelamujer.com/iam/wp-content/uploads/2010/02/IAM-U_728837.pdf

Material hau Asturiasko Emakumearen Institutuak argitaratu du. Unitate didaktiko bat da, haur eta lehen hezkuntzako ikasleentzat. Umeen marrazki bizidunetako filmetan gizona eta emakumezko pertsonaien eraikuntza aztertzen du. Filmak sexismoarekin kritiko izanik ikustea ahalbideratzen digu.

Dale la vuelta! (2013)

http://www.cpraviles.com/materiales/dalelavuelta/Dale_la_vuelta_WEB.pdf

Avilesko "Educando en Igualdad" lantaldeak egindako material didaktikoa da. Egutegi bat da. Urteko hilabete bakoitzean, baterako hezkuntzako jardueretarako proposamen ezberdinak egiten dizkigute, gauza askori buelta ematea proposatuz: jolasari eta jostailuei, emozioei, patioari edo espazioen erabilerari, lengoaiari, emakumeek historian eta literaturan egindako

ekarpenei, gorputzari eta sexualitateari, eta erantzukidetasunari. Gai bakoitzerako adibide errazak eskaintzen ditu, haur, lehen eta bigarren hezkuntzarako.

Equidad de género. Recursos para educar en la equidad de género en las Asociaciones Juveniles. Material para 12-14 años y 15-19 años.

http://www.generandociudadania.org/genero/wp-content/blogs.dir/2/files_mf/1334310018carpeta12_14.pdf

http://www.generandociudadania.org/genero/wp-content/blogs.dir/2/files_mf/1334310043carpeta15_19.pdf

Berdintasunean hezteko baliabideak aurkezten ditu, ikuspegi aberasgarri, ludiko eta erakar-garri batetik. Horretarako, proposamenak, dinamikak, jokoak eta jarduerak eskaintzen ditu, gizonen eta emakumeen arteko botere harreman baztertzaleei buruz gogoeta egitera bultzatzen gaituztenak. Solidaridad Don Bosco GKEak argitaratutako materiala da. Lanerako dinamika zehatzak eskaintzen ditu, eta jardueren denbora, helburuak eta materialak zehazten ditu. 12 eta 19 urte arteko zuzendutako materialaren kasuan, roletan, lanbideekin, jostailuekin eta bideojokoekin zenbait dinamika, baliabide laburrak (collage bat esate baterako) eta jardueri buruzko dinamika berezi bat eskaintzen dira. 15 eta 19 urte artekoentzako baliabideen gaiak, berriz, hauek dira: genero rola, nortasuna, besteen ikuspegia ezagutzea, ezberdintasunak, bideojokoak eta baliabide laburrak, hala nola luzera jauzi bat edo estereotipoei buruzko jolas bat.

Nuevas formas de jugar (2007)

<http://www.juntadeandalucia.es/institutodelamujer/index.php/component/remository/func-startdown/211/?Itemid=71>

Izenburuak iradokitzen duenaren kontra, Andaluziako Juntak argitaratutako gidaliburu honek jolasik tradizionalei begiratzen die, baterako hezkuntzako joko bihurtzeko asmoz. Hau da, betiko moduan jolasteko (talde dinamikak, zaku lasterketak, aulkia, oilo itsua, ..) baina baterako hezkuntzako ikuspegiarekin, eta helburu horrekin planteatuta eta ebaluatuta.

Tic Tac Crono. Aprendamos a compartir (2007)

http://diversidad.murciaeduca.es/orientamur/gestion/documentos/guia_educacion_no_sexista.pdf

Castellongo Diputazioak argitaratu du. 17 fitxa eta baterako hezkuntzako jarduerak egiteko gidoiak dauzka, zenbait gai jorratzeko: lanbideak, lengoia, denboraren erabilerak, etxeko lanak, estereotipo sexistak eta genero indarkeria.

Feminismo para no feministas

http://www.femiteca.com/IMG/pdf/Feminismo_Para_No_Feministas_DEF-1.pdf

Emakume Gazteen Federazioak argitaratutako liburu honek feminismoaz lezio bat ematen digu, gazte ikuspegiarekin. "Normalizat ematen ditugun gauzak", baina feminismoari zor dizkiogunak, protagonista dira dokumentu honetan. Gainera, hemen elkarrizketak, pasadizoak, antzezlan bat eta -apaltasunez baina esperientziatik ikasita- eskaintzen zaizkigun aholkuak aurkituko ditugu. Feminista garen edo ez eta feminismoa gaur egun beharrezkoa den edo ez argi ez daukagun pertsona guztientzat ezinbestekoa.

2. Genero indarkeria prebenitzeko baliabideak

Guía para chicas. Cómo prevenir y defenderte de agresiones (1992)

http://www.bantaba.ehu.es/lab/files/view/Guia_Para_Chicas.pdf?revision_id=67392&package_id=67377

Gidaliburu hau M^a José Urruzolak idatzi du eta Andaluziako Emakumearen Institutuak argitaratu du. Hemen sexu erasoak prebenitzeko eta geure burua haietatik defendatzeko klabeak aurkituko ditugu. Erasoak, sotilenak ere, ulertzen eta atzematen lagunduko digu. Neska gazteak autodefentsa ikasten has daitezen lagungarria da. Gainera, eraso bat egon denean edo erasoak prebenitu nahi ditugunean zer egin dezakegun azaltzen digu.

Desconecta del maltrato. Desconecta zaituz tratu txarretatik (2009)

Gidaliburu hau Norma Vázquez, Itziar Cantera eta Ianire Estébanezek egin dute eta Sortzen aholkularitzak argitaratu du. Neska-mutil gazteentzat da, eta maitasunari eta indarkeriari buruzko kontzeptuak eta nahasteak argitu nahi ditu, indarkeria psikologikoaren detekzioa hobetu, eta bikotean elkar ondo tratatzeko pautak batzuk irakatsi. Gazte aldizkariaren estiloa imitatzen du. Zenbait atal dauzka, adibidez, komikiak, testak, eta galdera eta erantzunen atala, eta gogoeta egiteko, iritzia emateko eta partekatzeko edukiak eskaintzen ditu.

Mi novio me controla... lo normal (2007)

<http://minoviomecontrola.blogspot.com>

Online baliabide bat da, "maitasunak nahastutako" neskei zuzendua. Bitarteko honek zenbait eduki kulturalen inguruan ikuspegi kritikoa ematen du (Crepúsculo moduko filmak, Hollywood estiloko bideoak edo abestiak eta maitasun filmak), eta gazteen arteko harremanetan gero eta ohikoagoak diren egoerak eta bizipenak aurkezten ditu (adibidez sare sozialen edo whatsapp moduko aplikazioen erabilera). Ianire Estébanezek idatzitako baliabide ironiko eta

kritikoa da. Profesionalei eta gazteak "desnahasten" lagundu nahi duten pertsonei zuzendutako web bertsioan (www.minoviomecontrola.com) erabilera libreko baliabide didaktikoak biltzen ditu: bideoak, aurkezpenak, artikuluak, ikerketak eta azterlanak, 2009. urtetik aurrera gazteriarri eta indarkeria sexistari buruz eginak.

Ni ogros ni princesas (2007)

http://tematico.asturias.es/imujer/upload/documentos/guia_no_ogros_ni_princesas1069.pdf

Afektu eta sexu heziketako programa oso bat da, Asturiasko Emakumearen Institutuak sustatua. Genero indarkeria prebenitu nahi du, eta nesken eta mutilen artean berdintasuneko harremanak sustatu. Zenbait lan unitate eskaintzen ditu, eta saio eta dinamika zehatzak azaltzen ditu, nesken eta mutilen adinaren arabera sailkatuak.

Guía de los buenos amores (2011)

http://www.educacion.navarra.es/documents/57308/57750/los_buenos_amores.pdf/64f46b46-82d7-4183-9559-8a8dca6feaba

Gidaliburu honek tratua sustatzen du eta genero indarkeria prebenitzen du gazteen arteko bikote harremanetan. Nafarroako Gazteria Kontseiluak argitaratu du, eta maitasun osasuntsua eta kaltegarria, genero indarkeria, harreman osasuntsuak eta oinarrizko kontzeptuak azaltzeko klabeak ematen ditu.

Ligar, amar, cuidar (2012)

<http://www.fundacionmujeres.es/files/archivos/CARPETA%20LIGAR%2C%20AMAR%2C%20CUIDAR.pdf>

Mujeres fundazioak argitaratua. Baliabide labur hau nerabeei zuzenduta dago. Heziketa emozionala genero indarkeriaren prebentzioarekin eta afektu eta sexu heziketarekin lotzen du. Maitasunari buruzko test bat egiteko aukera ematen du, eta ligatzea eta sexualitatea motzean eta zuzenean aztertzen ditu.

Yo ligo, yo decido – Neuk ligatu, neuk erabaki (2012)

<http://yoligoyodecido.files.wordpress.com/2012/02/miniguia-yo-ligo-yo-decido.pdf>

<http://yoligoyodecido.files.wordpress.com/2012/02/neuk-ligatu-neuk-erabaki.pdf>

Neska gazteentzako gidaliburu txiki hau oso zuzenekoa da. Ligatzearen eremuan jazarpena identifikatzen du eta nesken autodefentsa emozionala sustatzen du. Ligatzera edo parranda egitera irten, nahi dudan moduan jantzi, noiz ligatzen dudan eta noiz ez, zer bilatzen dudan, nor dudan gustuko, noiz sentitzen naizen erasotua, ezetz esan dezaket beti, nire gorputza neurea da eta askatasunez irteteko eskubidea daukat dira gidaliburu honen atalak. Módulo Psicosocial de Deusto – San Ignaciok argitaratu du eta Ianire Estébanezek idatzi.

Maitez Minduta- Pillada por ti (2012)

<http://www.msssi.gob.es/ssi/violenciaGenero/publicaciones/comic/docs/PilladaEuskera.pdf>

<http://www.msssi.gob.es/ssi/violenciaGenero/publicaciones/comic/docs/castellano.pdf>

Genero indarkeria prebenitzeko komikia, Osasun, Gizarte Politika eta berdintasun Ministerioak 2011. urtean argitaratua. Euskaraz eta gaztelaniaz dago.



GENEROA AISIALDIAN MONITORENTZAKO GIDA PRAKTIKOA

Indarkeria sexista prebentzioa
aisialdiko jardueretan

2014ko Iraila



Profesionalak



Klaseak



Natura



Jarduerak



Gazteriaren Foru Erakundea
Instituto Foral de la Juventud

- ▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA
- ▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA